

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

KULTURA, HEZKUNTZA ETA KIROLA

Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2016eko uztailaren 29an hartutako erabaki baten laburpena; 2016ko urritik abendura bitartean TUVISAko hiri-garraio publikorako laguntzak emateko deialdia egiten da erabakiaren bidez

BDNS (identifikatzailea): 315823

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu-base Nazionalen kontsulta daiteke.

Lehen. Onuradunak

Gasteizko udalerrian errolatuta dauden eta baimendutako ikastetxeetan matrikulatu dauden ikasleak, gehienez 18 urtera artekoak.

Bigarrena. Helburua

Baimendutako ikastetxeetan matrikulatu dauden ikasleei TUVISAren hiri-garraio publikorako diru-laguntzak ematea, 2016/2017 ikasturtean, 2016ko urritik abendura bitartean.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko uztailaren 29an onartu zituen, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

30.000,00 eurokoa da deialdiaren zuzkidura.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

urriaren 1etik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko uztailaren 29a

Kultura, Hezkuntza eta Kirol Saileko zinegotzi ordezkaria
ESTÍBALIZ CANTO LLORENTE